

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOAREN ZERBITZUA

Alkatearen 12. Dekretua, normaltasun berri (2) igartzeko premiazko prebentzio neurriei buruzkoa

2020ko martxoaren 10etik, hainbat prebentzio-neurri ezartzen joan da Vitoria-Gasteizko Udala herritarren osasuna babesteko, Covid-19aren hedapena zela eta, Espainiako Gobernua-ren, Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetzaren ohartarazpenak aintzat hartuta, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bitartez deklaraturako alarma-egoeraren markoan. Alkatearen hainbat dekretutan jaso dira neurri horiek, zeinen bitartez premiazko prebentzio-neurriak hartu baitira, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko.

2020ko apirilaren 28an, normaltasun berrirako trantsizio-plana onetsi zuen Ministro Kontseiluak, lau fasetan —0 fasetik 3. fasera— taxututako prozesu graduala, datu epidemiologikoen bilakaeraren eta hartutako neurrien inpaktuaren arabera behar diren orientazio-aldaketetara egokitzeko modukoa.

2020ko maiatzaren 25etik, Euskal Autonomia Erkidegoa plan horren 2. fasera igaro zen, gerora maiatzaren 23ko SND/440/2020 Aginduaren bitartez aldatuko zen maiatzaren 16ko SND/414/2020 Aginduarekin bat etorriz —alarma-egoera deklaratuarekin batera ezarritako nazio eremuko zenbait murriztapen malgutzekoa, normaltasun berrirako trantsizioko planeko 2. fasearen aplikazioaz—.

Ko-gobernantzaren filosofiaren barruan, aipatutako Ministerioaren aginduaren ondoren, Lehendakariaren maiatzaren 24ko 12/2020 Dekretua eman zen, zeinen bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako ezartzen baitira trantsizio-prozesuaren 2. fasea aplikatzeko Espainiako Gobernuarekin adostutako arauak.

Bestalde, berriki eman diren xedapen horiek eta, oro har, 1. eta 2. faseek berekin dakarten prebentzio-neurrien deseskaladak gomendagarri egiten dute Udal honek gizarte-errealitate berri horretara egokitzeko diren zenbait neurri hartzea, Estatuko eta autonomia-erkidegoko xedapenekin bat etorriz. Horren adibide da normaltasun berrirako trantsiziorako maiatzaren 11ko hamaikagarren dekretua.

Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetako alkateek erabaki dute aurten jaiak ez ospatzea orain arte egin izan diren bezala, bizi dugun larrialdi sanitarioaren egoera kontuan izanik. Hiru hiriburu erabakia bat dator Eusko Jaurlaritzaren irizpideekin eta EUDEL-en batzorde eragileko kide guztiek —kultura- eta jai-ekitaldiak egiteari dagokionez, eta osasun publikoa bermatzeko ezarri beharreko mugapenak kontuan izanik— 2020ko maiatzaren 14ko bilkuran aho batez erabakitako gomendioekin. Era berean, eta gomendio horiek aintzat hartuta, egokitzen jo da udako beste jarduerak batzuk ere bertan behera uztea, hala nola Santiago Eguneko baratxuri-azoka, Santiago Eguneko eta Andre Maria Zuriaren jaietako oinezko salmenta, Auzo Eszena programako hainbat ikuskizun eta Udalaren opor-jardueren programa.

Bestalde, egoera sanitarioaren bilakaera onari esker, hainbat udal zerbitzu eta azokak berriro ekin diote beren jarduerari eta aurrez aurreko arretari. Besteak beste, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Merkataritza Zerbitzuak txosten bat egin du, Lakuako eta Simon Bolibar plazako asteroko salmenta ibiltariko azokak fase berri honetan

atzera irekitzeko moldatze aldera, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko premiazko prebentzio-neurriak hartu zireneko 2020ko martxoaren 18ko Alkatearen 4. dekretuaren bidez bertan behera utzi baitziren.

Aurreko akordioetan adierazi bezala, egoeraren premia zela eta, dekretu honetan jasotzen diren neurrietako batzuk dagoeneko iragarri eta aplikatu dira, baina beharrezkotzat jotzen da Alkatezaren erabaki betearazle batean jasotzea, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 36. artikulua ildotik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikulua arabera, beste batzuen artean eginkizun hauek betetzea dagokio alkateari: b) Udalerriko politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; h) Kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta Udalbatzari berehala jakinaraztea, eta i) Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea.

Xedatu dut

Lehen xedapena. Andre Maria Zuriaren jaiak bertan behera uztea.

1. Andre Maria Zuriaren 2020ko jaiak bertan behera uztea erabaki da, EUDEL-en batzorde eragileak 2020ko irailaren 15era bitartean antolatzen diren era guztietako ekitaldien inguruan emandako oinarriko gomendioak aintzat hartuta.

2. Era berean, bertan behera uzten dira Andre Maria Zuriaren 2020ko jaietan egitekoak ziren jaietako puxika, txano, lepo-zapi eta bestelakoen oinezko salmenta eta eskulangintza-azoka.

Bigarren xedapena. Santiago Eguneko baratxuri-azoka eta oinezko salmenta bertan behera uztea.

1. Santiago Eguneko —2020ko uztailaren 25a— baratxuri-azoka eta jaietako puxika, txano, lepo-zapi eta bestelakoen oinezko salmenta bertan behera uztea erabaki da.

Hirugarren xedapena. Bertan behera utzitako ekitaldien inguruko neurriak.

1. Kultura Sailari, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Sailari eta kulturaren, artearen eta aisialdiaren arloko jarduerekin zerikusirik duten gainerako sailei eskatzen zaie 2020ko udan egitekoak diren ekitaldien egutegia egin dezatela, osasun-agintariek ezarritako mugak eta EUDEL emandako gomendioak aintzat harturik.

2. Behar diren kudeaketa-lanak egingo dira bertan behera utzitako ekitaldiak geroratzeko, posible izanez gero.

3. Nolanahi ere, bertan behera geratu diren ekitaldietarako sarrerak erosiak zituztenek ordaindutakoa itzularazteko aukera izango dute.

Dagokionean jakinaraziko da noiztik aurrera itzuliko den sarreren zenbatekoa.

4. Bertan behera utzitako ekitaldiak ematekoak ziren enpresekin egindako kontratuei dagokienez, tramitazio administratibo bakoitza berrikusiko da, bai arte eszenikoen sektoreari bai Udalaren interes publikoari kalte gutxien sortzen dieten neurriak aplikatze aldera.

Laugarren xedapena. Salmenta ibiltariko azokak atzera irekitzea.

1. Lakuako eta Simon Bolibar plazako asteroko salmenta ibiltariko azoken galarazpena altxatzea, baldintza hauekin:

a) Iraunkorrak ez diren azokak beren jarduera egokitu edo mantendu ahal izango dute ohiko lekuetan, baldin eta egiten diren espazioek aukera ematen badute deseskalada-fasearen arabera baimendutako edukiera gaindituko ez dela bermatzeko eta pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantziaren inguruko baldintzak betetzeko. Udalak, behar izanez gero, iraunkor ez diren azoken azalera handitzeko aukera baloratu ahal izango du.

b) Iraunkor ez diren azokak egiteko egokitutako estali gabeko espazioek guztiz mugarrিতා egon beharko dute, obra-zintarekin, hesiekin edo espazioaren mugak argi eta garbi markatzeko aukera ematen duen beste edozein bitartekorekin —merkatarien eta agintari lokalen arteko koordinazioa dela medio—, jendearen sarrera eta irteera kontrolatzerik izan dadin, eta, hartara, jendetza bil dadila ekiditerik.

c) Funtzionatzen duten saltokien antolamenduak eta kopuruak segurtasun-distantzia mantentzeko aukera eman behar du.

d) Saltokien banaketa lineala distantzia handi samarrera egin dadila gomendatzen da, kale batean saltokiak elkarren parez pare gera daitezela ekiditen delarik, igarobide batek bereizten dituelarik eta gutxienez 6 metroko distantzia uzten delarik haien artean, eta gutxienez 2,5 metroko tartea saltoki baten albotik ondokoaren albora.

e) Bezeroen etorrera masiboa egokitzen den uneetan, esparrura sartzea eragotziko da, eta kanpoan itxoin beharko dute, modu antolatuan eta segurtasun-distantzia zorrotz gordetzen dutelarik. Arazorik izanez gero, ordena publikoko indarren laguntza eskatuko da.

f) Azoka egiten den espazioaren zaintza bermatu beharko da hura zabalik dagoen orduetan, urruntze sozialaren arauak bete daitezela, eta orobat ekiditeko jendetza bil dadila.

Bosgarren xedapena. Udalaren opor-jardueren programa bertan behera uztea.

1. Bertan behera uzten da Udalaren opor-programa, ekainaren 22tik abuztuaren 28ra bitartean egitekoa zena.

Seigarren xedapena. Udal zerbitzuei atzera ekitea.

1. Udal zerbitzu hauei ekingo zaie atzera:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako aurrez aurreko arreta, hitzorduarekin.
- Adinekoentzako zentro soziokulturaletako ile-apaindegiak eta podologia-zerbitzua.
- AMVISAREN aurrez aurreko arreta, hitzorduarekin.
- Herritarrei laguntzeko bulegoak, hitzorduarekin.
- Udal baratzeak, 2020ko maiatzaren 4tik aurrera.
- Animaliak Babesteko Zentroko adopzio- eta harrera-zerbitzuak, hitzorduarekin.
- Gazteen Argibideetarako Bulegoko aurrez aurreko arreta, hitzorduarekin.
- Garbiguneak eta "Reutilizaguneak"
- TUVISAREN aurrez aurreko arreta, hitzorduarekin.

Zazpigarren xedapena. Gizarte-etxeen sareko ikastaro eta jardueren bigarren hiruhileko ordainketa eta kuotak itzultzea.

1. Ofizioz itzuliko zaizkie gizarte-etxeen sareko ikastaro eta jardueren bigarren hiruhileko ordainketa eta kuotak Udalari ordainketak egiteko kontu-zenbakiren bat emana dieten pertsonen.

Itzulketa modu automatikoan jasotzen ez dutenek webgunean eskuragarri dagoen formula-rioa baliatuz eskatu ahal izango dute, edo telefonoz. Eskabidea egiteko epea maiatzaren 31an bukatuko da.

Zortzigarren xedapena. Auzo Eszena programan bertan behera utzitako ikuskizunetarako online erositako sarrerak itzultzea.

1. Bertan behera utzi dira Auzo Eszena programako ikuskizun hauek:

— Pánico Escénico taldearen "Por detrás todo un clásico" obra, martxoaren 15ean, Zabal-ganeko gizarte-etxean.

— Arox Bola Sormen elkartearen “Prospectus vitae”, obra, martxoaren 29an, Aldabeko gizarte-etxean.

— Pro-ismo 0 taldearen “El zapateo más breve del mundo” obra, apirilaren 5ean, Arriagako gizarte-etxean.

— Juanjo Monagoren “Reflexiones de un yonki” obra, maiatzaren 10ean, Ariznabarreko gizarte-etxean.

— Ipazapi taldearen “El jardín de Argos” obra, maiatzaren 17an, Zabalganeko gizarte-etxean.

— Arteko taldearen “Madre coraje y sus hijos” obra, maiatzaren 24an, Salburuko gizarte-etxean.

2. Internet bidez erositako sarreren dirua itzuliko da, eskabidea egiten delarik, dela webgunean eskuragarri dagoen formularioa baliatuz, dela telefonoz.

Aurrez aurre erositako sarrerei dagokienez, laster jakinaraziko da itzulketak egiteko baliatuko den modua.

Xedapen indargabetzailea

1. Baliogabetuta geratuko dira Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko premiazko prebentzio-neurriak hartzeko eta normaltasun berrirako trantsiziorako Alkatearen dekretuetan jasotako neurriak, hemen bildutakoen kontrako diren edo horiekin kontraesanean daudelarik.

2. Bereziki, indarrik gabe geratuko dira xedapen hauek:

— Alkatearen 4. dekretuaren —2020ko martxoaren 18koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko— bosgarren 2 xedapena.

— Alkatearen 4. dekretuaren —2020ko martxoaren 18koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko— zazpigarren 1 xedapena.

— Alkatearen 8. dekretuaren —2020ko apirilaren 14koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko— bosgarren xedapena.

— Alkatearen 8. dekretuaren —2020ko apirilaren 14koa, premiazko prebentzio-neurriak hartzea, Covid-19 koronabirusaren eragina murrizteko— hamargarren xedapenaren hirugarren paragrafoa.

Azken xedapena. Errekurtsoen erregimena

1. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi errekurtsua Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, Hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, berriz, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikokoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 1ean

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE